

SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK

GURASO BILERETARAKO IRAKASLEENTZAT GIDOIA

GU BAI GURASO BERRITSUAK izeneko bideo eta esku-orri sorta irakasleok gurasoen bileretan erabiltzeko sortu da. Beste erabilera batzuk ere izan ditzakete, baina hasieratik asmoa hori izan da:

- Bideoak taldeko bileretan erabiltzea
- Esku-orriak banakako bileretan banatzea

Edukiek, haurren adinaren arauera, bilakaera bat dute (haur txikietatik LH amaiera bitarte) eta gurasoen hizkuntza ere kontuan hartu da: euskarazko eta elebietako bideoak, eta euskarazko eta gaztelaniazko esku-orriak.

Ikastetxe bakoitzak azter dezake zein bideo eta esku-orri erabiliko dituen, eta lehendik beste tresnaren bat ere erabiltzen bada, horien osagarri izan daitezke.

Guraso bileretan euskarri hauek erabiltzeko asmoa baduzue, lagungarria izan daitekeen gidoi bat aurkezten dizuegu.

1- Taldeko bileretan

- Gaia kokatzea
- Bideoa jartzea
- Mezua indartzea

2- Banakako bileretan

- Gaia kokatzea
- Esku-orriko ideiak azaltzea
- Proposamenak egitea

TALDEKO BILERAK

GAIA KOKATZEA

Ikastetxe moduan hainbat helburu ditugu hizkuntzei dagokionez:

- Gure ikasleek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi dugu. Gutxienez bi hizkuntza ofizialetan maila ona izatea, baita hirugarren hizkuntzan ere.
- Euskararen erabilera sustatzen dugu: hainbat ikastetxeren kasuan proiektu pedagogikoan bertan hori jasotzen delako, baina horrela ez den kasuetan ere, ikasleek hizkuntzak ondo ikasteko erabili egin behar dutelako.

Hizkuntzen ikaste prozesua, eleaniztasuna eta euskararen erabilera gai garrantzitsuak dira, eta horiei buruz hitz egitea beharrezkoa iruditzen zaigu. Gainera, gurasook ere izaten dituzue hainbat kezka horren inguruan ere eta irakasleoi ere adierazi izan dizkiguzue.

BIDEOA JARTZEA

IZENBURUA	MEZU NAGUSIA
1 Haurraren komunikazio beharrak asetu	Gizartean bizitzeko eta, bizi ez ezik, ongi bizitzeko ere beharko du umeak hizkuntza. Ase ditzagun haurraren komunikazio beharrak: etxeko hizkuntzatik hasita eta inguruko beste hizkuntzekiko ateak irekiz. Zenbat eta sendoagoa euskaraz jabetzeko prozesua, orduan eta oinarri sendoagoa ondoren etorriko diren beste hizkuntzak ikasteko.
2 Oparitu zenbait hizkuntza bereganatzeko aukera	Haurrek, sozializaziora begira, hizkuntzak behar dituzte: jolasteko, lagunak egiteko, ikasteko, eguneroko beharrak asetzeko eta abar. Hizkuntza batean baino gehiagotan eroso eta seguru sentitzera iristea lorpen handia izango da beraientzat. Horrek abantaila sozial, laboral eta kulturalak eskainiko dizkie besteak beste. Etxeko hizkuntza zaintzetik hasi behar dugu eta euskararen lekua bermatu behar dugu.
3 Eskaini euskara ingurune hurbilean	Inguru hurbilean euskararen lekua zaindu behar dugu. Jarrera egokiak eta euskara erabiltzeko aukerak eskainiz, hizkuntza bereganatzen lagundu diezaiekegu, eta euskara ere sentsazio eta bizipen positiboekin lotzen.

<p>4 Eskolaz kanpo erabiltzeko aukerak eman</p>	<p>Hizkuntzak ikastea eta eleaniztunak izatea ona izango da gure seme-alabentzat. Baina hurrek hizkuntzak ondo ikas ditzaten oinarri garrantzitsuena erabilera da.</p> <p>Eskolaz kanpo zenbat eta euskara gehiago hobeto: hizkuntza ondo ikastera begira eta bizipenak izatera eta hizkuntzarekin gozatzera begira.</p>
<p>5 Lagunartean euskara erabil dezaten lagundu</p>	<p>Lagun diezaiegun gure seme-alabei hizkuntza-ohiturekin. Lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskaraz egitea edo ez egitea ez da aukera bat, testuinguruak oso baldintzatutako jokabide bat baizik. Merezi du oinarri on bat eskaini eta laguntzeak.</p>
<p>6 Euskararekiko harremana zaindu, eskaini erreferenteak</p>	<p>Gure seme-alabentzat ona izango da eleaniztunak izatera iristea. Baina euskara ere hizkuntza erakargarri eta aberats moduan ikusi behar dute, eta horri begira euskarazko erreferente ugari eta anitzak izateak asko lagunduko die.</p>
<p>7 Euskararekiko harremana zaindu, euskara erakargarria izan dadila</p>	<p>Gure seme-alabek euskaraz ikasten dute, baina horrez gain euskararekiko harreman indartsua eta positiboa izatea onuragarria izango da beraietzat. Horri begira euskara ere balio indartsuekin lotu dezaten lagundu behar diegu. Horrek eragina izango du beraien jarrera eta jokabideetan.</p>

MEZUA INDARTZEA

Bideoa amaitzean, bertan agertu diren ideia nagusiak errepika ditzakegu, gaiari garrantzia eman behar zaiola esan, gurasoei azaldutakoak kontuan hartzeko eskatu, eta banakako bileretan berriz aipatuko dizkiegula azpimarratu.

Bideoko edukiei buruzko iritziak ere eska ditzakegu eta baita zalantzak argitu ere.

BANAKAKO BILERAK

GAIA KOKATZEA

Taldeko bileran eleaniztasunari buruz, hizkuntzak ikasteari buruz eta euskararen erabilerari buruz ere aritu ginen.

Arduratuta gaude gai honekiko eta ikusten dugu garrantzia eman behar diogula: familiok eta irakasleok norabide berean aritu behar dugu.

Hori dela eta, zuen seme-alabentzat lagungarriak izan daitezkeen zenbait aholku eskaini nahi genizkizueke.

ESKU-ORRIA EMATEA

Esku-orria emango diegu eta bertan agertzen diren mezu nagusienak azpimarratuko dizkiegu. Aholku zehatzak edota tresnak agertzen diren esku-orrien kasuan, horiek azpimarratuko ditugu.

Une egokia izan liteke gurasoen iritzia jasotzeko ere.

IZENBURUA	ESKU-ORRIAREN EDUKI NAGUSIA
1 Haurraren komunikazio beharrak asetu	<ul style="list-style-type: none">- Komunikazioa gara- Komunikazioa emozioak pizten du- Hizkuntza, gure gizatasunari lotua- Hizketan hasi arte, bide luzea egiten du haurrak ikasten- Haurrei hizkuntzaz jabetzen lagun diezaiekegu- Familiaren hizkuntza elkarbizitza irudikatu- Euskara eskolan eta eskolatik kanpo ere ikasten da
2 Oparitu zenbait hizkuntza bereganatzeko aukera	<ul style="list-style-type: none">- Gertukoa zaintzetik abiatu- Inguru hurbilean euskara zaindu- Beste hizkuntzekiko jarrera egokia transmititu
3 Eskaini euskara ingurune hurbilean	<ul style="list-style-type: none">- Beraiekin euskaraz egin edo dakigun euskara erabili- Etxean euskararen lekua zaindu- Euskaraz izan daitezkeen harremanak bistaratu

<p>4 Eskolaz kanpo erabiltzeko aukerak eman</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola orduz kanpoko jardueren garrantzia: bermatu batzuk euskaraz izatea - Haur-ekitaldietara joan - Bisita gidatuak eta lantegiak ere aukera bat dira
<p>6 Euskararekiko harremana zaindu, eskaini erreferenteak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eskaini euskal kulturarekiko harremana - Erreferente ezagun edo erakargarri izan daitezkeenak bistaratzea - Gertuko erreferenteak eskaini
<p>7 Euskararekiko harremana zaindu, euskara erakargarria izan dadila</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal kulturarekiko harremanetan jarri - Eredu izan eta gure jarreraren bidez lagundu - Eragile izateko aukera eman

OHARRAK

- Mezuak ematerakoan buruan izan:
 - o Eleaniztasuna eta hizkuntzak irabaztea: gure ikasleek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi dugu. Gutxienez bertako bi hizkuntza ofizialetan edozein egoera eta harremanetan eroso aritzera iristea. Gehitzea da helburua: hizkuntzak irabaztea. Gurasoon laguntza behar dugu.
 - o Gertukotik abiatzea: eleaniztasunerako bidea gertuko hizkuntzak zaintzetik abiatzen dela sustatzen dugu. Gurasoek lehendabizi etxeko hizkuntza zaindu behar dute (hizkuntza hori edozein izanik), ondoren bertako beste hizkuntzari garrantzia eman. Eta bereziki, etxeko hizkuntza ez denean, euskarari.
 - o Euskararekiko harremana zaintzea: hainbat testuingurutan euskararen erabilera eta presentzia ez da handiegia. Ikasleek euskara eskolarekin soilik lotzeko arriskua handia da. Gurasoek norabide horretan lagundu behar dute: erabilera eskaintzen eta bereziki bizipenak eta erreferenteak eskaintzen.
 - o Atzerriko hizkuntza kontuan izatea: gurasoek interes handia dute hirugarren hizkuntzarekiko, batez ere ingelesarekin. Horri begira ere mezuak positiboa izan behar du: seme-alabei lagundu, harreman egokia eskaini hizkuntzarekin, erabil-guneraren bat bilatu... Baina azpimarratu gertukotik abiatzearen ideia: ingelesa hainbatek beharko dute, baina bertako bi hizkuntza ofizialetan gaitasun ona izatea eta edozein egoera eta harremanetan eroso eta seguru sentitzea oinarri oso garrantzitsu bat da seme-alaben sozializaziora begira.

- Espero ez ditugun iritziak eta kezkek agertzen hasten badira, eta irakasleok ez badituzue mezuak argi, gaia lantzen ari zaretela aipatu eta ekarriko dituzuela berriz ere guraso bileretara. Interesa eta kezka agertzea modu positiboan baloratu. Erantzun guztiak ez edukitzea ez da negatiboa, are gehiago, zuentzat ere hori argitzea baliagarria dela esatea, ona da.